

Oro har, sendagile baino bi aldiz polizia gehiago du Euskadik. 2.800 berriekin, proportzioak ainbat okerrago geratzen dira, noski.

Eskolekin jarraienez gero, etab: kasi Hezkuntza eta Jakintza Delegazioak EGB mailan enplegatzen dituen irakasle guztiak adina ziren iaz Gipuzkoan poliziak. Agian aurreko irakasleak baino gehiago dira, 2.800 horietakoekin.

Apaiz gehiegi dagoela Euskal Herrian? Moja baino ere polizia dexente gehiago dago Bizkaian. Bai. Apaiz eta fraile denak batera baino doble eta dexente polizia gehiago, dexente gehiago.

Puntu honetan egunkaria heldu da gure etxera eta kontuak atezteari utzi egiten diot:

«Más policías hacia San Sebastián

SAN SEBASTIAN (EGIN). — Numerosos autobuses y vehículos policiales se encaminaban hacia San Sebastián a primeras horas de la noche. Por la carretera general de Tolosa a Donostia desfilaron un mínimo de treinta autobuses de la Policía Nacional, presumiblemente para reforzar, tanto en Donostia como en otras capitales vascas, a los once mil guardias y policías ya establecidos permanentemente en nuestro suelo» (31.01.79).

Ehun metrotik ehun metrora polizia bat ipinita, Euskal Herriko polizia Donostiatik Cadizeraino ailegatuko litzateke lerro-lerroan. ■ *Lazkano Mendizabal.*

Kaleko aldizkaritxo bat

ZUBIBARRI Deustuko Gau Eskolatik aldizkaritxo bat jaso du, azalean «Gaurko gizona izan behar da» dioena.

15,5 x 21 zm. luze zabalean, 98 orrialde, polikopiaz egina, ipuin eta kontakizunez hornitua... ez da beste munduko gauza, ez da hoberena, ez da bakarra. Baina bai interesgarria.

Ikuspegi askotatik da interesgarria honelako aldizkari baten saioa. Hasteko, euskara ikasten dabilen jende normalak egindako lana da. Ikus daitekeenez, gau eskola horrek ingurune eta giro egoki bat sortzea posible egin du. Hona fruitu bat. Honelako aldizkari baten eginkizun didaktikoa, oso aberatsa da, zalantzarik gabe. Zeren eta ibiltzen ibiliz ikasten bada, idazten ere idatziz ikasten da. Idazle berriak (hain beharrezko ditugunak) sortzeko plataforma onuragarri izan daitezke hauzo-, eskola-, talde-mailako aldizkari hauek. Holako aldizkariak ugalduko balira, idazleen erreleboa aseguratuta legoke. Eta zergatik ez dira, ugalduko, azpiegitura eta tresna hain guti eskatzen dutenez? Deustuko publikapen

honen asmoetako bat horixe dateke, gainera, azalean bertan dakarrenez: «Hau Deustuko jende normalak egindako lana da. Oso erraza da. Saia ezazu zure herrian».

Honelako aldizkari baten bigarren abantail bat ere seinalatu nahi nuke, oso laburki bada ere. Beraiek aitortzen dutena: «holan kaleko jendea eta goi mailako literatura arteko bidea erraztu nahi izan dugu». Tresna egokia dirudi, horretarako ere.

ZUBIBARRIko aldizkaritxo hau lekuko ona da azken 20-25 urteetan gure gizarteak izan duen aldaketa antzemateko. Jite honetako aldizkaririk bazen orduan ere (haietan jaió ziren oraingo idazle asko). Garai hartako eta oraingo aldizkari hauck funtzio bera badute ere, zer diferentzia edukinaren aldetik. Ingurunearen presentzia askoz ere eragikorragoa da orain, eta, esan bezala, oso bestelakoa da inguru eta giro hori. Aldizkaritxo honen gaitan agertzen den ingurunea, hau da: hiria, kalea, politika, biolentzia, iraultza, hizkuntza.

Oraingo eta duela 20 bat urteko aldizkari mota honen artean, edukinaz aparte, beste desberdintasun bat ere nabarmen daiteke. «Gaurko gizona izan behar da» dio aldizkari horrek, baina nonbait, Deustuko gaurko gizonak ez du olerkirik egiten. Deustuko kaleetan ezina ote poesia? Naabri nabaria da olerki falta zenbaki honetan. Narratibatik jotzen du jendeak. Gure garaian, poesia zatekeen nagusi. Erromantikoagoak ginen gu. ■ *Joan Alzibar.*

Euskarazaintzaile batzuei bi hitz

Ez omen zaio garrantzirik eman behar garrantzirik ez duenari. Ez nagoke bada bi hitz erran gabe Iparralde honetatik, Hegoaldean ditudan aspaldiko ezagun eta kideko batzuei.

Erdarazko artikulu batean irakurri berri dut («DEIA» 1978-XII-27) elgarretaratu zaretela Eibarreko alde horretan, Kerexeta, Gaztañaga, Onaindia, Yurramendi, ene aspaldiko ezagunak eta beste zenbait «Euskararen berezitasun guztiak zaindu nahiz eta gure mintzairaren batasuna orozbat lagundu beharrez...» edo zenbait holako.

Gure eskualdeko nehoren izenik ez dut zuen elkartean aurkitu. Gu ez ote gara zuentzat Euskal Herria? Etorriak ginen bada joan den udan Bergarara, Zibero, Baxenabarre eta Lapurditik, gure berezitasunen aipatzeko eta beste euskalkietako haurridekin batunaren lantzeko, duela 60-80 urte Azkue, Eleizalde eta Broussain-ek ideki ziguten ildo beretik. Zuetarik anitzik ez dut han ikusi. Zergatik ote? Ala zuen arteko, zuen «txokoko» batasuna nahi duzue zuen artean egin, gu gabe, gero zuen «batasun» hura guri burutik behera ezartzeko?